



“Paperezko liburuak galdu egingo du gizartean duen leku nabarmena”

Hautsa kendu beharrik ez, 2.0 diseinua eta nahi adina liburu gordezko lekua. Gisa horretako gailu bat edukita, irakurle askok beren buruari galdetzen diote orain zer egin behar ote duten etxean pilatuta dauzkaten liburu guztiekin. Iraultza teknologikoak, musika kontsumitzeko ohiturak goitik behera irauli ondoren, liburuen esparrura egin du jauzi, eta hainbat zalantza eta galdera ekarri ditu berekin. Javier Celayak, hainbat argitaletxeren aholkularia eta La empresa en la Web 2.0 liburuaren egilea bera, argi ikusten du aldaketa berri honek idazteko eta irakurtzeko moduari ere eragingo diola.

Zuk zer nahiago duzu, liburu elektronikoa edo paperezkoa? Liburu elektronikoa.

Zergatik? Oso arrazoi jakinagarengatik: formatu horretan eduki gehiago dauzkat nire interes eta zaletasunentzat. Liburu teknikoak izan da Sarean bide egin duen lehenetakoa. Nik asko irakurtzen dut ingelesez, eta eduki asko bilatzen ditut nire lanbidearekin, argitaletxeen aholkularitzarekin, zerikusia dutenak. Gainera, asko bidaiatzen dut, eta liburu elektronikoak aukera ematen dit nire beharrian kultural guztiak maleta batean sartzeko: liburuak, musika, filmak, aldizkariak, egunkariak, eta abar.

Zein dira formatu bakoitzaren alde onak eta txarrak? Papera ere teknologia bat da, eta 500 urte daramatza gurekin... zerbaitegatik izango da: modu atsegin, sensorialean irakurtzeko aukera ematen du. Baina eragozpen handiak ditu: gehiegi pisatzen du eta lekua hartzen du apalategietan (eta etxeak gero eta txikiagoak dira). Aitzitik, liburu elektronikoak ez du pisatzen eta ez du lekurik hartzen, irakurketa pertsonalizatzeko modua ematen dizu –letra mota

handitu edo alda dezakezu, pantailari distira gehiago eman edo kontraste gehiago, eta abar– eta irakurri duzunari buruzko oharrek partekatu egin ditzakezu ezagutzen ez duzun jendearekin, eta horrek aberastu egiten du irakurketa-esperientzia.

Esan ote daiteke jauzi teknologiko behin betikoaren aurrean gaudela kulturaren euskarriari dagokionez?

Bai, honek ez du atzerakorik, Internetek gure ohitura guztietan izan du eragina. Aldaketa erradikal hori oraindik ez da iritsi literaturara, oraindik ere betiko eredia errepikatzen jarraitzen dugulako, baina oso litekeena da hurrengo urteetan “narratiba transmedia” esaten zaiona ikustea. Hori ikusia dut nik Ameriketako Estatu Batuetan, non autoreek lan digitalak ateratzen dituzten, pantailan soilik irakurtzekoak, eta horretara egokitzen dute narratiba, testu laburrak erabiliz, esaldi motzagoak edo lotura hipertestualak txertatuz. Uste dut multimedia-eleberriak ikustera iritsiko garela.

Zenbat denbora geratzen zaio paperezko liburuari? Paperezko liburuak ez da desagertuko, baina galdu egingo du gizartean duen leku nabarmena. AEBetan, digitalak dira salmenten % 20.

Aldaketa horrek zer ondorio ditu irakurketa-ohituran?

Hasteko, hasiak gara azkarrago irakurtzen baina arreta-tarte gutxiagorekin; diagonalean irakurtzea esaten zaion hori. Gogo handia izango dugu eduki eta jakiteko, baina gaietan gutxiago sakonduz. Eta narratzaileek kontuan hartu behar dute hori idazteko orduan. Beste aldaketa bat da orain sozialagoak garela: egiten dugun guztia partekatzen dugu, baita irakurtzen duguna ere; bakarkako zerbaite izateari uzten ari zaio irakurketa.

Euskarri elektronikoan gehiago irakurriko da edo gutxiago? Ez dut uste liburu digitalak gutxiago irakurtzera eramango gaituenik, behintzat hasieran. Espainiarren % 50ek diote oso gutxi irakurtzen dutela, Liburu-saltzaileen Gremioaren arabera. Antzeko kopuruetan ibiliko garela iruditzen zait.

Ez al da galduko bizitzeko eta gauzak ikusteko modu bat? Bai, zalantzarik gabe, batez ere sentimentalki leku horietan hezi garen belaunaldientzat. Baina iraultza guztiek ekarri ohi dituzte tragedia txiki eta handiak.

Norantz goaz formatu elektronikoekin, kultura pertsonal libreago batera edo kontrolatuagora? Liburu digitala bide arriskutsua da, zalantzarik gabe. Betiko liburu-dendetan, askatasun osoz aukeratzeko zenuen zure liburuak, eta orain presio handia egingo dizute kultura-biartekariak. Etorkizuneko belaunaldiak hezi egin behar dira, ez dezaten gal euren kabuz erabakitze gaitasuna, irizpidez jokatzeko eta hautatzen jakiteko gaitasuna.

Espainian gutxi irakurtzeko ohitura izan da beti. Ez al dira harrigarri samarrak liburu elektronikoaren pirateriaz ematen diren zifrak? Pirateriaren arazoan zera ikusten dut nik: erantzunik eman ez zaio kontsumo-eskari bat, kasu honetan titulurik ez dagoelako eskura. Egia da zenbait pertsonak ehunka liburu elektroniko pilatzen dituztela disko gorrean, sekula irakurriko ez dituztenak. Interneten, guztiok daukagu Diogenesen sindromearen antzeko zerbaite, baina hori gertatzen da, orain arteko gizartean, norbait izateko eduki egin behar zelako, eta oraingoa, berriz, “norabaiteko sARBIDEA edukitzetik” eta “norabaitekin partekatuzetik” bizi da. Liburu elektronikoaren eskariari erantzuten zaionean, murriztu egingo da pirateria.

Javier Celaya

Argitaletxeen teknologia-aholkularia eta DosDoce plataformaren sortzailea

